



Maite sugar bizia

JOAN GURUTZEKO

Fontibero'n, Abila'ko eritxoan jaio zan, goiz loratsu batean. XVI'garren gizaldia —1542— aurrera joian, andere buru-erexi antzera. Ba-ziran or-emenka, egite dizditsu ta gora-min ugari. Ez gara soin bakarrik; barrenean dogu gogo zerutar bat, goi-min irakiñean beti.

Bere gurasoak, aita bai, baña ama etzan leiñargia jatorriz; apalak eta eunle ogibidez. Semeak be, egia esan, joera bardiña eban; baña onek goitarari me urdiñez bere bertso-miesa arrigarria eio.

Egun itun baten, Gonzalo Yepes aita ona, zerura joan zan. Bere ba-zan ugari sukaldean; gero, ez-eukian larri, Katalin Alvarez alar-Medina'ra. Emen bai ots aundia, garai artan! Urrin joiazan gudariak, merkatarari doillar ta ikasle malmutzak, eskale ta kantariak, onek ziran goi-eguzki orduko. Eta emen azi zan Joan Yepes, krabeliña baizen guri; baita bere goi-deiaren lenengo pinportak urratu be, mosu gorri.

Goizero, eguna argitzean, Meza erasotera joian gure txikia Augustindar monjen eleizara, ta meza-entzule goiztarrak zer-edo-zer becko etzana ikusi si eben beragan: aingerua zirudian. Onein arteko zan Alfonso Alvarez, Gegotetxeko nagusia, ta gaztetxoaren eder ta bearrizanez errukiturik, erruki-etxe artara eroan eban, zerbait ikasi ta ango zeregiñetan arazotu zeiten. Eta Joan txikiak, ain zuzen be, ikasi eban, eta bereala bere ikasteko gaitasun eta ekan-du onez beste guztien gaiñetik jarri zan.

Eta bein Medina'ko karmeldarren Lekaidetxean sartu zan. Nagusien aginduz, Salamanka'ko Ikastetxe nagusian amaitu ebazan ikasketak, adimena jakituriz ta biotza goi-maitasunez beterik. Eta beste bein... Oi, au bai egiz zoragarria! Joan Yepes gazteak, bere len-meza kanta eban Medina'ko Santa Ana eleizan; eta Jainko-itzak ebagitean, dardarka jarri ziran, pozaren pozez, bere ezpanak, eta barren guztia ikaran, Kristo'ren Gorputzak ikutzean; bere amak, ostera, intziri gozoz negar...

Orduantxe ezagutu eban Ama Teresa, komentuak barriztuten ebillana. Egun areitan eban bat Medina'n asmau ta jaso. Ta ango itz-toki zuri apañak, zelako berba gozoak entzun ebazan! geixo batek, zorakeri batek jotako arima biren arteko itz eta berba eztiak!

Andik urte betera, eta uri artan bertan, Joan karmeldar oiñuts biurtzen da, Ama Teresak bere «praille erdiarentzat», Karmel'go ordenako len-barriztallearentzat, amesti ta irrikoi egindako jantzia arturik; jantzi latza, baña guren ospetsua.

Arrezkero, goi-lorez ereindako bide zear dabilkigu Joan Gurutzeko; bere oin utsak be bertso urdiñezko lorratzak izten dabez. Lenengo Duruelo, aletogia komentu biurtuta: bertan eroien bizikera latzez, Ama Teresa, kementsu izan arren, ikaraz ipiñi eben; eta oneri laguntzen eutsen merkataribak, negarrez. Gero, Abila'ko monja-etxea... Aita Joan da ango monjen autole, ta bide artezez bai zuzentzen dabezala arima areik! Ondoren era-soldi gogorra. Oi, artekoen ikusi-eziña! Bederatzi illabetez Toledo'ko espe-tzean. An bai, arragoan burdiña lez, garbitu ta araztu zala bere arima ederra!